# Euskara

## Udaletako euskara zerbitzuek **laguntza** emango dizute.

### Zertan?



- **Hizkuntza aholkularitza**
  Euskaraz idazterakoan sortzen zaizkizun zalantzak argitzen lagunduko dizugu.
- **Testuen zuzenketa**
  Establezimenduan idatzi dituzunak zuzenduko ditugu.
- **Itzulpenak**
  Zuk ezin baduzu testua euskaraz egin, guk lagunduko dizugu.
  Baldintzak: - testu laburrak izatea; 2 orrialdekoak asko jota.
  - zabalkunde publikoa duten testuak izatea.
- **Kartelak**
  Establezimenduaren barruan zein kanpoan bezeroei begira jartzeko edozein informazio: oharrak, menuak, ordutegiak...
- **Materiala**
  "Merkealdia" kartelak. Norberak kartelak egiten ikasteko ereduak, hiztegiak ...

### Udalen diru laguntzak



Euskaraz jarritako errotuluak, irudi korporatiboa eta web orria diruz lagunduko dira. Denda, taberna, nahiz lantegi edo antzerako saltokietan euskara hutsean jarritako errotuluek edo etxe aurreko profesional jardueraren plakek, irudi korporatiboaren elementuak (gutun-azalak, inprimakiak, poltsak...) eta web orriak izango dute diru-laguntza jasotzeko aukera.

### Informazioa



Zure herriko Euskara Zerbitzuan

| | | |
|---|---|---|
| Ezkio-Itsaso: | 943 72 13 03 | ezkioitsaso@udal.gipuzkoa.net |
| Legazpi: | 943 73 71 88 | euskara.le@legazpi.net |
| Urretxu: | 943 03 80 88 | euskera.ur@urretxu.net |
| Zumarraga: | 943 72 91 53 | euskara@zumarraga.net |

## Badira **arrazoiak** zerbitzua hobetzeko

### Kalitatea




Kalitatezko zerbitzua eman behar zaie bezeroei, horrela lortuko du establezimenduak **arrakasta**. Hala, bezero euskaldunei zerbitzua euskaraz eskainiz, zerbitzu hobea eskainiko diezu: **bertakoa, gertukoagoa, konfiantzazkoa**... eta, haiek eskertu egingo dizute.
Hizkuntzari dagokionez, zehaztu beharko duzu nola kontuan hartu euskara honakoetan:
Enpresaren izena eta logotipoa, kanpoko eta barruko errotulazioa, , idazpapera eta zigiluak, bisita txartelak, harrerako hizkuntza, publizitatea, langileen euskara maila, bezeroarekiko ahozko eta idatzizko harremanak (fakturak, tiketak, oharrak...), posta elektronikoak, facebook, twitter, webguneak, etab.

### Bezeroak



Urola Garaia eskualdean **biztanleen erdia baino gehiago** euskaldunak edo euskaldunak dira, eta, ondorioz, baliteke bezero horiek euskararen erabilera aintzat hartzea enpresa batek eskaintzen dien zerbitzuaren kalitatea baloratzerakoan.

### Legea



Euskara, Euskal Herriko bertako hizkuntza izateaz gain, Euskadiko Komunitate Autonomoan ofiziala da gaztelaniarekin batera (10/1982 legea).
Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren Legeak (6/2003), 37. artikuluan, hizkuntzazko eskubideak aitortzen dizkie kontsumitzaile eta erabiltzaileei.
123/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa, onartu zuen Legebiltzarrak.
kontsumitzaileei eta erabiltzaileei aitortzen dizkien **hizkuntza-eskubideak gauzatzeko urratsak** jasotzen dira.



Euskaraz? pozik gainera — Zingizango.com – Legazpiko euskara elkartea
http://www.zingizango.com/blogak/nirekin-euskaraz-pozik-gainera
Kartel ereduak
Arlokako hiztegiak
Euskara hutsean ere saldu daiteke: Ternua eta Euskal Herria esnea.
hiztegiak
diccionarios gremios
kartelak
carteles
albisteak
noticias
ZER EGIN DEZAKET ...euskaraz
euskaraz bizi
el día día en euskera
EMAN ZURE IRITZIAK, IDEIAK ... pozik jasoko ditugu
iritziak
opiniones
diru-laguntzak
subvenciones
ESTABLEZIMENDUETARAKO MATERIALA
HIZTEGI OROKORRAK
ARLOKAKO HIZTEGIAK
ZER EGIN DEZAKET ...EUSKARAZ
KARTEL EREDUAK
EMAN ZURE IRITZIAK, IDEIAK ... POZIK JASOKO DITUGU
GUK POZIK LAGUNDUKO DIZUGU